

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4589

24/2023 DEKRETUA, irailaren 28koa, lehendakariarena, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan udalerrien ordezkariak izendatzeko dena.

Herri Dirubideen Euskal Kontseilua Autonomia Elkarteko Osorako Erakundearen eta bertako Kondea Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen arteko harremanari buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen bitartez sortu zen. Lege horren 28.2 artikulua aurreikusten duenez, kontseilu hori sei kidek osatuko dute, hiru Jaurlaritzak izendatuko ditu eta beste hirurak foru-aldundiek, bakoitzak bat.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen azken xedapenetako lehenengoak, 3. puntuan, 10. zenbakia gehitu zion azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 28. artikuluari, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan ezarpen handieneko udalerrien euskal elkarteak proposatuta lehendakariak izendatutako udalerrietako hiru ordezkari sartzeko, lurralde historiko bakoitzeko bat, hain zuzen. Bertan zehazten denez, izendapen horretan lurralde- eta genero-irizpideei eta tamaina desberdineko udalerrien presentziaren babesari jarraituko zaie lehentasunez, udal-ordezkariei heren bat gutxienez 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako hautetsiak izan daitezzen.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 5. puntuan xedatutakoaren arabera, 2020ko apirilaren 7ko Aginduaren bidez, Euskadiko Udalen Elkartea izendatua izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan ezarpen handiena duen udalerrien elkarte.

Lehendakariaren urriaren 7ko 27/2019 Dekretuaren bidez, udalerriek Finantzen Euskal Kontseiluan izango dituzten ordezkariak izendatu ziren. Hauteskundeak egin ondoren udalbatza berriak eratu ondoren, Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen Batzorde Betearazleak, 2023ko irailaren 19ko bilkuran, elkartearen erakundeetan ordezkatzeko irizpideak erabaki zituen. Irizpide horiek aplikatuz, presidentek euskal udalerrien ordezkari berriak proposatu zituzten lehendakariari, haiek izenda zitzaizkien, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan parte har zezaten.

Horregatik guztiagatik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.— Herri Dirubideen Euskal Kontseiluko kide hauek izendatzea, udalerrien ordezkari:

- Natividad López de Munain Alzola andrea, Burgeluko alkatea, Arabako Lurralde Historikotik.
- Esther Apraiz Fernández de la Peña andrea, Derioko alkatea, Bizkaiko Lurralde Historikotik.
- Nagore Alkorta Elorza andrea, Azpeitiko alkatea, Gipuzkoako Lurralde Historikotik.

Bigarren artikulua.— Indarrak gabe uztea lehendakariaren urriaren 7ko 27/2019 Dekretua.

2023ko urriaren 6a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 28an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.